

# noaua

Lokal hutsen poltsa bat osatu nahi du Udalak

Euskal Inauteri Festa Zubietatik abiatuko da



**GuraSOS, adostasun eske**



ADA  
-MASAJEAK-



Kirol masajea, Masaje lasaitzailea,  
Masajea bentosekin, Masajea banbuekin  
Belarriterapia.

Ordutegia 8:00-12:00 / 16:00-20:00

Errekatziki 1, Usurbil / Tlf. 633 36 22 33



SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

PANDA 4X4



TALENTO



QUBO 2



500X



SPORTAGE



SORENTO



STONIC



STONIC



677 109 902  
usurbilautoak@gmail.com

BAZKIDEEEN TXOKOA



Otsailaren 21ean ZOZKETATUKO dugu:

URDAIRA  
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe


Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

## Albiste iruditan

# NOAUA!-ko bazkide izateagatik sarituak

**N**OAUA! Kultur Elkarteko kide izateak opari bat baino gehiago dakartza! Begiratu bestela ondoko irudiko lagunei. Arantza Zuloaga Alberdiri urtarrila amaieran proiektatu genuen "Dantza" filmerako bi sarrera tokatu zitzaizkion. Txotx bolada betean garen honetan, Zubietako Iruin sagardotegian bi lagunentzako otordua Jose Peña Sarasuari.

Azken aldian NOAUA! K.E.-tik antolatutako zozketetako sarituak dituzue. Zorionak eta milesker bai zuei, bai egitasmo hau bizirik eusten laguntzen duzuen guztioi! Sariok irabazteko egin beharrekoa, erraza bezain garrantzitsua; NOAUA!ko bazkidea izatea. Asteotan sagardotegietarako otordu gehiago zozketatuko ditugu. Adi beraz!



Jose Peña Sarasua eta Arantza Zuloaga, NOAUA! K.E.-tik antolatutako zozketetako azken sarituak.



### Egin zaitetz NOAUA!ko bazkide

Bazkide zaitzeko gerturatu NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzara (Zubiaurrenea 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira. Izan zaitetz

NOAUA! kide eta trukean, sariak zozketen bidez, beharpenak NOAUA!k antolatutako ekitaldietan edota kultur elkarteko dinamikan erabakitzeko ahalmena eskuratuko duzu.

## Laburrean

### 1969an jaiotakoekin kinto bazkaria

50. urteurren bazkaria irailean edo urrian ospatuko dute. Eguna eta tokia zehazteke daude baina dagoeneko talde bat hasi da ospakizuna prestatzen. Aurrerago emango dituzte xehetasun gehiago.

### Arnaldo Otegiaren solasaldia Sutegin

Arnaldo Otegi EHBilduko koordinatzailea Sutegiko auditorioan izango da ostegunean (otsailak 21). Mertxe Aizpurua kazetariak gidatuko du 18:30ean hasiko den solasaldia.

### 1975ean jaiotakoekin bazkaria

Martxoaren 23an bazkaria bat egiteko asmoa dute Saizar Sagardotegian. Animatzen denak deitu edo mezu bat bidali dezala martxoaren 10a baino lehen: 653 728 059 (Haritz) / 655 73 89 04 (Olatz).

# noaúa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eu ||| www.noaúa.eu  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaúa.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaúa.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Aurrez aurre

**E**txean sentiarazteko moduko adinekoen egoitza berria aurkeztu zuen orain aste gutxi Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aspaldi Usurbilgo herriak landutakoa, udazkenetik aurrera eraikitze bidean izango da, 2021. urterako martxan. Argazki muntai ikusgarria argitaratu du Diputazioak, egoitzari dizdira dario. Etxean sentiarazi nahi ditu erabiltzaileak, arkitektura behar hauetara egokitu. Argazkietan erreparatuta, ezin ukatu ordea; begia, falta den “elementu” horretara joan zait. Argazkietako batean, Zubieta gaina ageri da etorkizuneko egoitza berritzaile honen atzealdean, mendi berdeez josia.

Mendi artean ezkutatu nahi izan arren, jada txoko askotatik begi bistakoa dugun erraustegia falta da noski “dekoratu” horretan. Ez dute

argazkietan txertatu. Bai, egia da, egoitza berriak izango duen itxura aurkezteko, egitasmo honen kokagunetik kanpo geratzen dena islatu beharrik ez dago argazki muntai batean.

Egokitu egin dute. Arkitekturen erabiltzaileak etxean bezala sentiaraztera moldatu nahi dute. Inguru ere ordurako nabarmen aldatua izango da. Kalezarko egoitza proiektu estrategiko eta erreferentzial gisa aurkeztu duen erakunde berak, Foru Aldundiak, aurrez aurre kokatuko baitio zentroari, eraiki eta martxan jartzerako, ke toxikoa etengabe eta kontrolik gabe isurtzen aritu litekeen erraustegia.

Nola saldu adinekoen egoitza, zentro berritzaile eta erdugarri gisa, erabiltzaileek kea darion erraustegi bat muturraren aurrean izango dutenean? Aparteko bi egitasmo izango dira bai, baina herri honek aurrez aurre, elkarri begira izan-

go ditu. Eta biak, aurrez aurre, erakunde berak kokatu eta aurkeztu dizkigu. Errioren alde batean, bizi-kalitatea hobetzeko proiektu bat sustatzen ari denean, Oriaz bestalde, guztion osasuna, baita noski Kalezarko egoitzako erabiltzaileena arriskuan jar dezakeen azpiegitura bultzatzen. Erraustegiak eta adinekoen egoitzak tartean izango dituzte N-634 errepidea, erria, Zubieta, baina zentzoko erabiltzaileak esnatzen direnetik lokartu arte aurrez aurre izango dute erraustegia ke betean, lehenago geratzen ez bada behintzat.

Errealitate hau ezingo da ezkutatu, estali edo desitxuratu. Une hori ez bizitzea espero dut, baina gertatuko balitz, nola defendatu adinekoen bizi kalitatea, aurrez aurre halako munstroa dutenean? Irudikatu ezazue, egoitza honen inaurgurazio eguna. Adinekoen

bizi-kalitatea ahotan hartu eta defendatuko den ekitaldi horretako argazkiaren atzealdean, erraustegia ke betean.

Baina estaltzen ahalegin-duko dira guztia, ahaleginean behintzat inbertitzen ari dira. GuraSOSeK egunotan argitara emandako dokumentu konfidentzialak ikusi besterik ez dago. Baina hobe ez segitzea, guraso taldeak plazaraturiko erraustegiaren sustatzaileen komunikazio-plana eskutan, kontrolatu eta isilpean eduki beharreko zerrenda horretako “elementuetako” bat izan nahi ez badut. Isilarazi eta kontrolpean izan nahi gaituzten guztiontzako hitzordua larunbatean; GuraSOSen manifestazioa Donostian, adostasunaren eta benetako demokrazia hobeago baten alde. Eta etorkizun hobeago baten alde baita, kerik gabeko adinekoen egoitza berriaren alde.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## EAJ-PNV ez dago Usurbilgo udal-gobernuan

**B**adaezpada diogu, argitzea komeni delako. Legealdi hasieran gobernatzeko aukeraren bat hartzeko prest ote zeuden galdetuta, garbi erantzun zigun EAJ-PNVk: “Ez, guk nahiago dugu oposizioan egon”.

Zilegi da, noski, oposizioan kokatzea. Are, desiragarria litzateke oposizio eraikitzailean aritzea. Zorritzarrez, udal-jardura eraikitzailean baino, noiz edo noiz NOAUA!!n artikuluren bat argitaratzera mugatu da Usurbilgo EAJ-PNVren jarduna.

Gainera, NOAUA!!n atera denean, badirudi EHBilduren udal-gobernuak landu dituen proiektuak bereganatu nahi izan dituela, Usurbilgo EAJ-PNVk bultzatu balitu bezala. Marka da, gero!

Ez da lehenengo aldia, baina nabarmen antzeman da jokabide hori Kalezarren garatuko den adinekoen auzunearen proiektuan. Atera ez zaigu, bada, oposizioburua egoitza horren onurak eta bertuteak gorai-patzen. Esan ez digu, bada, “Kalezar auzoko errepidearen zatia urbanizatzearen partida talde jeltzalearen ideia izan zela”. Hara, “ideia” hori ogasun-batzordera eraman zutenerako, hilabeteak lehenago, EHBilduren gobernu-taldeak jasota zeukan lan hori egiteko partida eta diru kopurua aurrekontuetan!

EAJ-PNV pozten omen da Usurbil delako “eraikina hartuko duen herria”, kasualitatez etorri balitzaigu bezala. Egiazki proiektu horren lanke-tan aritu izan balira, jakin-

go lukete Usurbilek ez duela proiektu hori txiripaz hartuko, baizik eta urte askotako lana izan dela proiektu hori Usurbila ekartzea. Duela hamar bat urte, artean EHBildu sortu gabea zela, orduko ANVko gobernu-taldeak sekulako lana egin zuen Usurbilen egoitza egiteko, eta geroztik etengabeko lanean aritu gara, bai Udala bai herritarrak, gure herrian adinekoen egoitza egin dadin. Hori dela eta, Matia Fundazioak eta Aldundiak behin eta berriz aitortu dute Udal honen bultzada eta ekimena.

Hala ere, EAJ-PNVk bota du epaia: “orain Udalari dagokio Matiarri laguntza guztia eskaintzea egoitza eraikitzeko”. Orain? Eta orain artean Udalak egindakoak ez al du balio? Ez-

jakintasuna eta errespetu falta, biak biltzen ditu esaldi horrek.

Eskertzekoa da EAJ-PNVk Usurbilgo udal-gobernuak garatu dituen proiektuekin bat egitea. Hor bada EHBilduren udal-gobernuari egiten zaion nolabaiteko aitortza. Baina gustu txarrekoa da besteek egin dutena Usurbilgo EAJ-PNVk bereganatu nahi izatea, eta errespetu gutxiakoa da protagonista gisa agertzea, egin gabeko lana norbere mesederako erabiltzeko asmoz.

Legealdi honetako proiektuak Usurbilgo EHBilduren udal-gobernuak garatu ditu, eta ez oposizioan dagoen Usurbilgo EAJ-PNVk.

Badaezpada diogu, argitzea komeni delako.

**Usurbilgo EHBildu**

# Gure Esku Dago: “Herritar guztion eskubideak daude jokoan”

U ne zail hauetan ere, Usurbilek Kataluniarekin egoten segitzen du. 2017ko urriaren 1eko erreferenduma antolatu eta honen bestez, Kataluniaren etorkizuna erabakitzeko hitza katalanei emateagatik preso dituzten buruzagi katalanak epaitzen dabilta asteotan Madrilén, Espainiako Auzitegi Gorenean. Buruzagiok aske uztea galdegin, auziperatuei elkartasuna adierazi eta epaiketa salatze-ko elkarretaratzea deitu zuen Gure Esku Dago Usurbilek Mikel Laboa plazan otsailaren 12an. Epaiketa hasi zen egun berean bildu ziren frontoi atzean, “Seguim amb vosaltres. Askatasuna erabakitzea da” aldarriean, Euskal Herriko eta Kataluniako sinbolo ditugun ikurriña eta esteladekin.

Igandean Donostian egin zuten manifestaziorako eginiko gonbitari eustea deitu zuten; epaiketa amaitu arte, egunerokoan hori koloreko xingola nahiz arropa edota osagarriak eramatea soinean. Eta horre-



Katalan buruzagien epaiketa salatze-ko elkarretaratzea egin zen aurreko astean Mikel Laboa plazan.

## GURE ESKU DAGO “Erreferendum demokratiko bat epaitu eta zigortu nahi dute”

kin batera, konponbidea, demokrazia eta askatasuna oinarritzko aldarririk kalera atera eta aldarrion artean “gure burua demokratizat dugu guztiok” bat egitera deitu zuten.

### Herrien autodeterminazio eskubidearen ukazioa

Gure Esku Dagotik ohartarazi dutenez, Madrilén abian den

epaiketa guztion kontuan da. “Preso dauden buruzagi katalanen askatasunarekin batera, herritar guztion eskubideak daude jokoan”. Zergatia mobilizazioan bertan argitu zuen Gure Esku Dagok. “Batetik, prozesu judicial horrek oinarritzko eskubideak urratzen dituelako, eta beraz, denon eskubide zibil eta politikoak jartzen dituelako jokoan. Eta bestetik, erreferendum demokratiko bat epaitu eta zigortu nahi dutelako. Azken batean, erabakitzeko eskubidearen kontrako epaiketa bat da: herrien autodeterminazio eskubidea ukatu nahi du”.

## Udaberri honetan, bi hauteskunde egun

Espainiako Gobernuko presidente Pedro Sanchezek aurreko ostira-lean Espainiako Gorteetarako hauteskundeak aurreratuko dituela iragarri ostean, ordezkari politikoak hautatu eta erakundeak berritzeko botoa emateko bi egun izango ditugu udaberri honetan:

■ Apirilak 28, igandea: Espainiako Gorteetarako hauteskundeak.

■ Maiatzak 26: udal\* eta foru



Apirilaren 28an Espainiako Gorteetarako hauteskundeak ospatuko dira.

hauteskundeak, Europakoekin batera.

\*Zubietako Herri Batzarra berritzeko eguna ere izango da.

## Martxoaren 8a marrazten

Martxoaren 8ko 24 orduko greba feminista irudikatzen, marrazten hasia da Usurbilgo emakume talde bat. Potxoenean bildu ziren lehen aldiz, otsailaren 14an. “Emakume\* batzuk bildu ginen martxoaren 8ko greba feministari forma emateko asmoarekin. Hitz eta pitz aritu ginen: eguna nola irudikatzen genuen, zer antola genezakeen, elkar ezagutu genuen, hainbat belaualdi elkarrekin imajinatu genituen...”. Ideiei eta sor daitezkeen berriei forma emateko bigarren bilera bat deitua zuten otsailaren 19rako, astearte honetarako.

## Otsailaren 24an, zine foruma Potxoenean

Martxoaren 8ari begira lehen hitzordua finkatu da jada. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailaren enkarguz, Arremanitz Kooperatibak zine foruma antolatu du iganderako (otsailak 24) 18:00etan Potxoenean.

“Parekidetasun Sailaren enkarguz, Arremanitz Kooperatibak ziklo berri bati heldu diogu Usurbilen: herrian jada ematen diren tratu onei merezi duten balioa ematea. Bizitza erdigunean jartzen duen greba feministarekin bat egiteaz gain, Usurbilgo mugimendu feminista elikatzeko asmoz, zine foruma antolatu dugu igandea honetarako. Zaintzak, ezinbestekoak zaizkigun tratu on horiek izango dira gai nagusia eta zaintza langileek gure jendartean duten tokiaren inguruan hausnartuko dugu”.

Zaintzaren gaietara helden dien filma proiektatuko dute ekitaldiaren baitan; “Cuidado, resbala”.

# Zapategiko hirigintza proiektua hobeto ezagutzeko aukera

**E**lkar eta Gureak enpresen egoitza nagusiak Usurbilgo lurretan ezarriko dira. Michelin enpresaren ondoko orube abandonatuan, zehatzago esanda. Dagoeneko hasi dira lur-eremua egokitzen. Proiektuari buruzko xehetasun gehiago eskainiko dira otsailaren 28rako iragarri den agerraldian.

Egitasmo hau ez da egun batetik bestera gauzatu. Lekualdatzeari ekin aurretik, enpresak denbora luzez aritu ziren proiektua aztertzen. Harik eta interesatu denak akordio batera iritsi ziren arte.

## “Udala, Gureak eta Elkar eskuz esku aritu dira lanean”

“Usurbilgo Udala Gureak eta Elkar Fundazioarekin eskuz esku aritu da lanean, gure herrian proiektu sozioekonomiko garrantzitsu bat gauzatzeko”, udal iturriek aditzera eman dutenez. “Bi enpresok ez dira edonor. Usurbilgo herriaren baliokin bat egiten duten eragile ekonomikoak dira”. Gureak-ek arlo sozialean, inklusibitatean, egiten duen lanarengatik. Elkar



Urriaren iragarri zen Usurbilgo Udala, Elkar Fundazioa eta Gureak enpresaren arteko akordioa. Proiektuaren inguruko xehetasun gehiago eskainiko dituzte otsailaren 28ko agerraldian.

### UDALA-GUREAK-ELKAR

**Egitasmoaren xehetasun gehiago eskainiko dituzte otsailaren 28an Sutegin. 18:30ean hasiko da agerraldia**

Fundazioaren kasuan, puntako erreferentzia delako euskara-

ren eta euskal kulturaren zabalakundean. “Ondorioz, nekez aurki genezakeen bazkide horberik”.

### Sutegiko erakusketa aretoan

Proiektuaren inguruko xehetasun gehiago eskainiko dituzte datorren asterako iragarri duten agerraldian. Ekitaldia Sutegiko erakusketa aretoan izango da, otsailaren 28an os-

teguna, arratsaldeko 18:30ean. Aurkezpenean Xabier Arregi Usurbilgo alkatea, Iñaki Alkorta Gureak Lanean Sozietatearen Administrazio Kontseiluko presidentea eta Joxemari Sors Elkarlanean Fundazioko presidentea izango dira.

Egun horretan bertan proiektuaren gaineko erakusketa zabalduko dute Sutegiko erakusketa aretoan.

## Langabeziak koxka bat behera Usurbilen

2018a gorakada txiki batekin agurtu ostean, beherantz egin du berriz langabetu kopuruak udalerrri honetan urte hasieran. Guztira, 243 zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak urtarrilean Usurbilen.

Aipatzekoa, 45 urtetik gorakoan artean dago langabe-

tu kopuru handiena; 243tik 136. Gizonezkoak baino (101) emakumezko langabetu gehiago dago, 142. Aldiz, emakumezkoak baino gizonezko gehiago kontratatzen segitzen da; urtarrilean erregistraturiko 443 lan kontratuetatik 243 gizonezkoenak

ziren, 200 emakumezkoenak. Lan kontratu gehienak, 443tik 399, aldi baterako.

### Gipuzkoan aldiz, gora egin du langabezia tasak

Usurbilen koxka bat behera egin du langabetu kopuruak. Buruntzaldean eta Gipuzkoan

ordea gorantz egin zuen urtarrilean. Eskualde mailan, 3.064 langabetu zenbatu ziren abenduan, 24 langabetu gehiago urtarrilean, 3.088. Gipuzkoan 31.678tik 32.226ra gehitu da langabetu kopurua. 548 langabetu gehiago 2019an sartzearekin batera.

# Herriko lokal hutsen poltsa bat osatu nahi du Udalak

U surbilen eta inguruko herrietan asko dira jarduerarik gabeko lokal hutsak. Arazo honi irtenbide bat bilatu nahian, *Guztion Egitasmoa* proiektua osatu dute Beterri-Buruntzako udalek. “Helburu nagusia da lokal hutsen poltsa publiko bat osatzea, negozio bat irekitzeko lokal bila ari den ekintzailearen zeregina errazteko”. Udalak zubilana egingo luke lokala eskaintzen eta bilatzen ari direnen artean. Proiektuaren xehetasunak aurkezteko bilera antolatu da otsailaren 25erako.

Hutsik dauden lokalak kezka iturri dira udaletxeko arduradunentzat. Jarduera dinamizatze-ko asmoz, *Guztion Egitasmoa* abiarazi dute Beterri-Buruntzako udalek. Batetik, jarduera gabe dauden lokalen egoerari buruzko azterketa egin nahi da, “lokalon erabilgarritasun maila zehaztu ahal izateko”. Hau da, udalek neurtu nahi dute ze



Udalak zubilana egin nahi du lokala eskaintzen eta bilatzen ari direnen artean.

## LOKAL HUTS UGARI

### Jarduera ekonomiko berriak irekitzen lagundu nahi du Udalak

lokaletan beharko liratekeen egokitzapenak, “jarduera berriak ireki ahal izateko bertan eta egokitzapenok egiten laguntzeko dirulaguntza bereziren bat kaleratzeko beharrik ba ote den”. Bestetik, lokal hutsen poltsa publiko bat osatu nahi du Usurbilgo Udalak, negozio

bat irekitzeko lokal bila dabilen ekintzailearekin zubilana egiteko, eta lokalaren jabea eta ekintzailearen arteko harremana errazteko.

## Otsailaren 25ean bilera

Udalak lokaletako jabeek aurkeztu nahi die egitasmoa eta horretarako bilera bat antolatu du. Otsailaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, Potxoenean. Egunotan jabeek telefonoz ari zaie banan bana deitzen honen guztiaren berri emateko.



Carol Herrereraren hitzaldian txiki geratu zen Udarregi Ikastolako jangela. Maitasun erromantikoaz hitz egitera etorri zen aurreko astean eta uste baino jakinmin handiagoa piztu zuen aditu madrildarrak.

## Bihurriko kuota ordaintzeko epea amaitzeaz da

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. “Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte eta jada bazkide direnek 10 euro”. Ordainketa kontu zenbaki honetan egin: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

## Ludotekako giltza

Ludoteka utzi duten gurasoek giltza itzuli beharko dute. Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue edo ondoko helbidera mezua bidali: bihuririludoteka@gmail.com

## Haurrentzako zine zikloaren azken proiektzioa

Neguko azken hilabetearekin batera amaituko da, urte garai honetarako Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek haur eta gaztetxoentzat antolatutako euskarazko zine zikloa. Azken proiektzioa beraz, martxoaren 3an arratsaldeko 17:00etan Sutegin. “Gazte harrigarria, T.S. Spivet” izeneko filma eskainiko dute. Montanako 12 urteko jeinuaren historia dakar ikus-entzunezko honek.

## Sarrerak 3 eurotan salgai

Filmerako sarrerak 3 eurotan eta egunean bertan salgai.

**ANORGA TXIKI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ARTZABAL**  
 BASERRIA · JATETXEA  
 EGUNEKO MENUA KARTA  
 PLATER KONBINATUAK  
 OGITARTEKOAK · TOSTAK  
 MENU BEREZIAK  
 943 36 91 39  
 www.artzabaljatetxea.eus

## Armairuak ondo antolatzen ikasi nahi?

**N**ork ez du Marie Kondoren berri? Azkenaldian, toki guztietan ageri da bere izena. Japoniarra da, idazlea, eta etxea antolatzeko teknikekin egin da mundu mailan ezagun. Gurean, Maitane Ormazabal Larzabalek eskaintzen ditu antzeko ikastaroak. Otsailaren 28an TaPunturen bulegoetan izango da. Armairuen barne-antolaketari buruz jardungo du.

“Zer moduz zuen armairuak? Ba al dakizue nola aprobetxatu armairuak eskaintzen dizuen espazioa? Ezagutzen al dituzue antolaketa elementuak edo osagarriak?”. Ikastarora bertaraten direnek galdera hauen erantzunak jasoko dituzte.

Tolestaketa bertikalaz ere arituko da Usurbilen eskainiko duen ikastaroan. “Azken honek horrelako interesa piztu du, nahitaezkoa dela honi buruz hitzegitea”, Maitane Ormazabalen Facebook orrial-



Maitane Ormazabalek “Armairuak txukuntzen” ikastaroa eskainiko du otsailaren 28an TaPunturen egoitzan. Argazkia: Txukuntzen.

### OTSAILAREN 28AN

**Maitane Ormazabalek armairuen espazioa hobeto antolatzeko teknikak erakutsiko ditu TaPunturen egoitzan eskainiko duen ikastaroan**

dean irakurri dugunez. “Eta behin teoriarekin jarrita, ezin praktika minimoa egin gabe utzi”.

Interesatuta daudenek alde

aurretik eman dezatela izena. TaPunturen gelako eserleku kopurua mugatua baita.

### Armairuaren barne-antolaketa

- Otsailak 28 osteguna.
- 18:00etatik 20:00etara.
- Usurbilgo TaPunturen bulegoan. Zubiaurrenea kalea, 6.
- Izen-ematea: info@txukuntzen.com
- Prezioa: 20 euro. Lekua mugatua da, beraz, alde aurretik izena ematea komeni da.

## Sorosle ikastaro berri bat iragarri du DYAk, “arrisku egoerei aurre egiteko”

**D**YAk sorosle ikastaro berri bat eskainiko du Muna Lurraren duen egoitzan. Martxoaren 11n hasi eta apirilaren 2ra bitarte iraungo du; astelehenean ostiralera 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaro honen bitartez, egunerokotasunean aurki daitezkeen arrisku egoerei erantzuteko tresnak erakutsiko dituzte. Bihotz eta birika susparketak, zauriak, hausturak, erredurak... Izena ematen duenak ezagupen arruntak bezain garrantzitsuak jasoko ditu.

Ikastaroak badu teorikotik

eta badu praktikotik. “Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du”, DYAkoek aditzera eman dutenez.

### Sorosle eta sorospen ikastaroa

- Martxoak 11, apirilak 2.
- Astelehenean ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.
- Matrikularen prezioa: ikastarorako txostena barne, 110 euro.
- Ikasle kopurua mugatua izango da.
- Izena emateko edo informa-



Martxoaren 11n hasiko da ikastaroa.

zio gehiago jasotzeko, deitu 943-46.46.22 telefono zenbakira edo bisita ezazu DYAgipuzkoa.com web orrialdea.

■ Hizkuntza: Euskara.

## Udal diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Zabalik da jada udal diru-laguntza deialdira eskabideak aurkezteko epea. Udalak Udalberri hilabetekariaren bidez iragarri duenez, gutxira 212.400 euro banatuko ditu diru-laguntzetan. Laguntza lerro hauek eta lerro bakoitzerako kopuruok iragarri ditu:

- Kultura: 80.000 euro.
- Kirola: 50.000 euro.
- Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzen dituzten kirol-jarduerak: 5.000 euro.
- Kirol egokitua: 3.000 euro.
- Federatu gabeko kirol elkarteentzat: 1.000 euro.
- Ingurumena 5.000 euro.
- Nekazaritza eta abeltzaintza: 15.000 euro.
- Gizartegintza: 12.000 euro.
- Deserrotze eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen senideentzako laguntzak: 4.000 euro.
- Igogailuak instalatzeko laguntzak: 10.000 euro.
- Hutsik dauden lokaletan jarduera berri bat abian jartzeko lokalen alokairurako laguntzak.

### Eskabideak martxoaren 12ra arte bideratu daitezke

Usurbilgo Udalak onartuak dituen 2019rako udal diru-laguntzen oinarrien berri zehatzago, otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo usurbil.eus atarian jaso dezakezue. Eskabideak martxoaren 12ra arte bideratu ahalko dira, lokal hutsak biziberritze-ko diru-laguntza deialdian izan ezik. Kasu honetan, irailaren 30era arteko epea izango baita.



# Benidormera alde egindako amon-aitonek Sutegiko auditorioa bete zuten

Aurreikuspenak gaindituta, sartu ezinik geratu zen jendea. Sutegi gainezka zen Gure Pakea jubilatuko elkartekoen "Halako batean bagoaz Benidorrera!" antzezlanaren estreinaldi egunean. Arrakasta itzela izan zuen umore ukitu nabarmena izan zuen emanaldiak. Ohol-tza artista talde baterano bikainak hartu zuen. Zorionak Tarsi Martinez, Isi Navarro, Maitere eta Pako Alkorta, Jone Agirrezabala eta Kattalin Arzallus!

Ixabel Agirresaroberen gidaritzapean azken asteotan ondutako emanaldiaren emaitza ezin borobilago plazaratu zuten otsailaren 8an. Arrakasta ikusita, ezin baztertu guztiz asteotako abenturak segida izango ez duenik.

## Txapelketak

Bazkideak jokoan jarri dituz-



Antzezlanak izan zuen arrakasta ikusita, ezin baztertu guztiz asteotako abenturak segida izango ez duenik.

ten txapelketek eman zioten segida Jubilatuko Asteari, otsailaren 12an eta 13an, karta jokoak, eta toka eta igel jokoe-tan lehiatu ziren Gure Pakeako kideak. Azpian dituzue txapelketa batzuetako irudiak

## Pentsio duinen aldarria plazara

Urte hasieran eginiko aurreikusitakoa betetzen dabilta. Maiatzeko hauteskundeak arte gutxienez, hilero bizi eta pentsio duinen alde mobilizatzen segiko dute. Usurbilgo

Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate jubilatuko elkarteei deituta, hurrengo hitzordua, otsailaren 28an (osteguna) arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazaratzen.



Antzezlanaren estreinaldian Sutegi txiki geratu zen.



Bazkideen arteko txapelketak jokatu ziren aurreko astean Gure Pakean.

## Willy Toledo eta “El rey” Sutegin

Juan Carlos I Espainiako erregearen eta Espainiako azken hamarkada hauetako historiaren inguruan, Alberto San Juanek zuzendutako “El rey” filma proiektatuko da martxoaren 10ean Sutegin. Filmean parte hartuko duen aktore ezagunetako bat gainera, Willy Toledo, Usurbilen izango da. Proiektzioarako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira ohiko tokietan. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarian.



Alberto San Juan, Luis Bermejo eta Willy Toledo dira filmeko aktoreak. “El rey” filma martxoaren 10ean ikusi ahal izango dugu Sutegin.

### Antzokitik zine pantailara

Antzerki lan bat du oinarrian Teatro del Barrio Kooperatibak ekoiztu duen film honek. Espainiako historia garaikideko pertsonaiak gain, gertakari errealak hartzen ditu hizpide. Alberto San Jaunek historia, politika, monarkia eta transiziozko pasarte batzuk aztertu ondoren idatzi zuen gidoia.

200 emanaldi baino gehiago egin ondoren, urrats bat aurrera egin eta film baterako egokitu zuen antzezlan.

### Alberto San Juanen zuzendaritzapean

Alberto San Juanek zuzendu du filma Valentin Alvarez argazkilaritza zuzendariarekin

batera, eta San Juan bera, Luis Bermejo eta Guillermo Willy Toledo dira aktoreak.

### Martxoaren 10ean Sutegin


Martxoaren 10ean igandea, Sutegin ikusi ahal izango dugu. Datozen asteetan emango ditugu xehetasun gehiago.

## Felix Sarasolaren omenaldia prestatzeko bilera

Urte amaieran zendu zen Felix Sarasolak lagun mordoa utzi du, bai Usurbilen baita Usurbiletik kanpo ere, inguruko herrietan, nahiz atzerrian. Bere senide eta lagun talde bat bildu da Sarasolari merezi duen agurra emateko. Eguna ere finkatua dute jada; martxoaren 31n izango da omenaldia.

### Otsailaren 25ean Potxoenean

Hitzordua prestatzen hasteko bilera irekia deitu dute datorren otsailaren 25erako arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Omenaldira batu nahi duen edonori irekia eta zuzendua egongo da bilkura.



Omenaldira batu nahi duen edonori irekia eta zuzendua egongo da bilkura. Otsailaren 25ean astelehena, 18:00etan Potxoenean.

### Elkarretaratzea euskal presoen alde

Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du Usurbilen Nahi Ditu gu bilguneak. Hitzordua, otsailaren 22an 20:00etan Mikel Laboa plazan.

### Venezuelari buruzko hitzaldia

Aintzane Iribarrek eta Tadamun elkargune internazionalistak Agustín Otxotorena, Venezuelako urteak bizitzen daraman euskal enpresaria gonbidatu dute martxoaren 5ean 19:00etan Sutegiko auditoriora. Euskal Herrian bueltan da hilabeteotan eta Venezuelako bizi duten egoeraren berri ematen ari da hainbat herritan. Ikusmina eragiten ari dira bere hitzaldiak baita sare sozialen bidez erakusten ari den “beste” Venezuela ere. Hitzaldiaren testuinguruan, Aintzane Iribar Aguiar, Venezuelako jaio eta bizitzaren zati handi bat Usurbilen eman duena elkarriketatu dugu datorren astekarirako.

### Erakusketa berria Artzabalen

Dolo Marina eta Larraitz Ugartemendiaren margolanak ikusteko aukera izango da Artzabalen martxoaren hasieratik apirilaren erdialdera arte. Bi belaunaldi ezberdinetako Arte Ederretako ikasketak eginak dituzten bi emakumeren sortze-lan bilduma esekiko dute bertan.

### Odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek bi hilean behin finkatu ohi duen hitzordua, bueltan datorkigu. Datorren odol ematea, martxoaren 4an, astelehenarekin, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Usurbildarrak ere **berria lagun**

Ni euskarazko prentsaren alde  
**Eta zu?**



Paulino Ibargoien

Egin zure ekarpena:

**Hilean 10 € / urtean 100 €**

**Eta eskuratu ABANTAILAK:**

- BERRIA PDFn
- Zerbitzu berezietarako sarrera
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eksklusiboak

**NOLA EGIN BERRIALAGUN**

• **Laster jasoko duzu gure deia:**

**Erosi Usurbilen BERRIAren eskutik** kanpainan parte hartu bazenuen, eskaintzaren berri emateko deituko dizugu.

• **Aurre hartu eta egin zaitez gaur BERRIALAGUN:**

Sartu [Berria.eus/berrialagunausurbil](http://Berria.eus/berrialagunausurbil) webgunean edo deitu **943-30 43 45** telefonora.

**berria**·mundua·euskarari·emana

# EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 23 · LASARTE-ORIA

**11:00-13:00** | Herrian barrena, elkarteetan zehar **PUSKA BILA**

**16:30** | Zubietako plazan **ekitaldia**


**16:45** | Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

**17:00** | Herritarren **HARRERA** txantxoei  
Herritarren gonbidapen dantza eta txantxoeren erantzuna

**17:15** | **SENIDETZE DANTZALDIA**

**17:30** | Kalejira herritik

**19:00** | **Erromeria eta suaren ekitaldi berria**  
Amaitzeko, **txokolatada** goxoa Okendo plazan



# Adostasunaren aldeko olatua Donostia hartzera doa



“Adostasunari esan baietz” aldarriarekin abiatuko da GuraSOSen manifestazioa.

**A**dostasunaren aldeko olatua handitzen doa egunez egun. Larunbatean Donostiako kaleak hartzeko girotze lan betean da GuraSOS. Gogoan izan, “Adostasunari esan baietz” aldarria izango duen manifestaziorako deitu gaituela otsailaren 23an Donostian. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Antiguako tuneletik.

Manifestazio honen testuinguruan, atxikimenduen bilketa kanpaina abiatu du. Lagunak, familiak, lankideak... batu eta adostasunaren keinua eginez argazkiak atera eta gurasos.org web orrialdean sartuta irudiak igotzera animatzen gaituzte. Dagoeneko gipuzkoar mordoak egin duen bezala; tartean noski, usurbildarrek. Ondoko irudiak horren erakusgarri.

**GuraSOSen erronka berria: “Eskuratu bigarren babes-kutxa”**  
Haurrak, ingurumena, elkarbizitza, etorkizuna... Gipuzkoa babestuko duten babes-kutxak jarri zituen salgai GuraSOSek

## OTSAILAK 23

**GuraSOSek larunbat honetarako deitu duen manifestazioa arratseko 17:00etan abiatuko da Antiguako tuneletik**

joan den udazkenean. Orduetik, “5.000 kutxa baino gehiago zabaldu dira”, GuraSOSen esanetan.

“Horrek esan nahi du jende askorengana heldu dela gu zabaldu nahian gabiltzan mezua”, gaineratu zuten otsailaren 10ean Lasarten egindako ekitaldian.

GuraSOSek urteotan bideratu dituen hainbat dinamika (Hitzartu besteak beste) garatu dituen modu berean, auzolanean egin nahi die aurre baita ekimenok eragindako gastuei. Horretarako sortu zituzten aipatu babes-kutxok. “Kutxa hauek bazter guztietara zabaltzeak, eman digu arnasa zor horiei guztiei aurre egiteko”, Izetaren esanetan.

Erronka berria proposatzen

digute orain. “Oraindik zorrak baditugu, seguru batzuk jada kutxa baduzuela, orain gure erronka honakoa da: hartu bigarren kutxa, denon artean kitatu behar ditugu zor hauek”. 80.000 euroko gastuei aurre egiteko, 56.408,55 euro bilduak ditu jada GuraSOSek. Elkartearen web orrialdean, gurasos.org atarian dituzue xehetasun gehiago.

## Usurbilgo saltokietan eskuragarri

Gogoan izango duzue urriaren 7an, etorkizuna kolore biziz margotu eta idaztera gonbidatu zituen GuraSOSek haur eta gaztetxoak Usurbilgo frontoian. Igande goiz hartako ekimeneko marrazki eta hitzkin apaindutako babes-kutxak dira, GuraSOSek 10 eurotan salgai jarritakoak. Usurbilen saltokietan eskura ditzakezue: Lizardi, Laurok, Otargoxo, Kaffa, Txalaka, Iturralde botika, Alkartasuna, Iratze naturtenda, Ines ileapaindegia, Intza ileapaindegia, Ixabel Estetika Zentroa, Lurda.

## Erraustegi ondoan bizitzeagatik, dioxina-maila altua odolean eta minbizi kasuen areagotzea

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT), hondakinen errausketak osasunean duen eraginaz diharduten mundu mailako ikerketa ezberdinen datu kezkarriak plazaratzen dabil astero, sare sozialen bidez. Azken hamabostaldian Frantziako beste bi ikerketetako datuak argitaratu ditu. Batetik, Frantziako “Increased risk of non-Hodgkin lymphoma and serum organochlorine concentrations among neighbors of a municipal solid waste incinerator” azterlanetik jasotakoak. “Ikerketa honetan erraustegietatik gertu bizi diren pertsonen odol-analisietan dioxina-maila altuak aurkitzen dituzte eta linfoma ez-Hodgkin minbiziarekin asoziazioa ere bai”.

## OEIT-ren ikerlana

Frantzian 1990-99 urte artean eginiko beste ikerlan bat ere aztertu du OEIT-k, “lau departamendu frantsetan 1972-1990 urte bitartean eraikitako erraustegietako emisioen esposizioan egondako” populazioari buruzkoa. Bertan, “asoziazioa baieztatzen da minbizi guztiak hartuta %6ko gehikuntzarekin, baita ere emakumeetan bularreko minbiziaren %9ko gehikuntzarekin, linfoma ez-Hodgkin-en %12ko gehikuntzarekin bi sexuetan eta gizonetan mielomen %23ko gehikuntzarekin”.

# GuraSOsen deialdiak atxikimendu ugari jaso ditu



## Erraustegiak isuritako toxikoak urtean 24 orduz soilik neurtuko lirateke

Otsailaren 10ean Lasarte-Oriako Manuel Leikuona kultur etxean egindako ekitaldiaren baitan, Zubietako erraustegiaren bultzatzaileek ezkutuan zuten komunikazio-plan konfidentziala plazaratu zuen GuraSOSeK. Astelehen honetan, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin duten agerraldian berriz, dokumentu berri bat eman du ezagutzera; Zubietako erraustegia eraikitzen ari diren enpresek eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) sinaturiko “Ingurumen Zaintza Plana”.

Dokumentuaren izenak dioen moduan, foru-agintariak isilpean mantendu nahi zuten ingurumena zaintzeko plana dugu. Bertan, “orain arte foru eta osasun agintariak argudiatutako argudio nagusiaren faltsukeria agerian utzi du. Hots, ez da egia erraustegiak botako dituen sustantzia toxikoenak (dioxinak, furanoak eta metal astunak) modu iraunkorrean neurtuko direnik”.

Ezta gutxiagorik ere. Enpresa eraikitzaileek eta GHK-k adosturikoaren arabera, erraustegia martxan jarri eta lehen urtean



GuraSOSeK dioenez, “etengabe neurtzen ez bada ezinezkoa da jarduera automatikoki geldiaraztea”.

### GURASOS

**“Ez da egia erraustegiak botako dituen sustantzia toxikoenak (dioxinak, furanoak eta metal astunak) modu iraunkorrean neurtuko direnik”**

aipatu plantak isuritako toxikoak 36 ordutan baino ez litzukete neurtuko. Bigarrenetik aurrera, urte bakoitzean 24

orduz guztira. Urte osoan egun batek duen adinako iraupena da hori. Guztira, asko jota, urteko denbora osoaren %0,3 inguruan baino ez lirateke neurtuko erraustegiak isuritako toxikoak.

Horrek esan nahi argia du, GuraSOSen esanetan. “Herriarrak “lasaitu” ahal izateko orain arte erabilitako beste argudioa ere erortzen da. Etengabe neurtzen ez bada, ezinezkoa da jarduera automatikoki geldiaraztea, mugaz gaindiko emisioak eman orduko”.

### Egia, gardentasuna, konpromisoa eta adostasuna adierazteko deia

Azken asteotan kaleraturiko ezkutuko dokumentuen ostean, GuraSOSen esanetan, “herriarrok beste jarrera azaldu behar dugu, egia, gardentasuna, konpromisoa eta adostasuna. Animatu guztiei larunbatean (otsailak 23) 17:00etan Antiguako tuneletik hau guztia aldarrikatzera”. Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanori zuzendu zaio GuraSOSeK lehendakari Joxe Mari Izeta. Galdetu nahi izan dio, “ea pentsatzen duen, baldintzak ematen diren proiektu honekin (erraustegiarekin) aurrera egiteko. Ez al den bideragarriagoa, gardentasunez edo alternatiba guztiak mahai gainean jarritz, elkarrekin adostasun batera iritsi eta gaia behar den bezala informazio garbiarekin eta guztion artean konpontzea”.

### Babes kutzak salgai

10 eurotan daude salgai Lizardi, Laurok, Otargoxo, Kaffa, Txalaka, Iturralde botika, Alkartasuna, Iratze naturtenda, Ines ileapaindegia, Intza ileapaindegia, Ixabel Estetika Zentroa, Lurda. Informazio gehiago: gurasos.org

## Ezkutuan mantendu nahi zen informazioa

Eskuratu duen informazioarekin, GuraSOSeK ongi planifikatutako gezurtzat jotzen du hau guztia, “ager ez zedin. Alde batetik konfidentziala dela ziurtatuz, eta, bestetik aurkitzen zaila den modu batean izatuz: letra oso txikian eta dokumentu erantsi batean dago datu hau. Eta azkenik zer sustantzia neurtuko ziren modu jarraian eta zeintzuk ez zehazteko garaian sustantzien izenak ezkutatuz. Dokumentuaren beste

atal batzuetan “dioxinak eta furanoak” aipatzen dira, esate baterako, legeek baino emisio-maila txikiagoak eskaintzen direnean, noiz neurtuko diren zehazten den atalean PCDD (poliklorodibenzodioxinak) eta PCDF (poliklorodibenzofuroak) siglak erabiltzen dira. Gauza bera gertatzen da oso toxikoak diren metal astunekin (beruna, artsenikoa, eta abar)!”.

Dokumentu honek agerian uzten duen errealitatearen la-

rritasuna nabarmendu dute. “GuraSOS-en ustez, osasun publikoko arduradurak informazio faltsua zabaltzen ari zeko estrategian parte hartzen ikusteak, osasun bermeetan izugarri larriki eragiten duen kontua da”.

Gogora ekarri ditu, zenbaitetan agertu diren hedabideen aurrera Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatua, “besteak bes-

te, esanez neurketak jarriak izango direla eta arazorik izanez gero berehala detektatu eta geratuko lizatekeela”. Gogora ekarri dituzte baita, 2016ko ekainaren 23an, Biodonostiako ordezkari Juan Jose Aurrekoetxeak eta Jesus Ibarluzeak egindako adierazpenak. Beraiek ziotenez, “dioxinen neurketak modu jarraian egingo zirela eta horrek baimenduko zuela arriskua balego, erraustegia berehala geratzea”.

## Mariaje Imaz: “Ezin dugu beste aldera begiratu”

GuraSOSeK egunotan ezagutzera emandako dokumentuen aurrean mintzatu zen astelehen goizeko Donostiako agerraldian, Mariaje Imaz Udarregi Ikastolako zuzendaria. Otsailaren 10ean Lasarteko ekitaldian ezagutzera emandako komunikazio plan konfidentzialak, erraustegia eta klima aldaketaren aurkako zentroa eraikiko den eremura bisita gidatuak antolatzea aurreikusten du ikastetxe eta herritarrentzat, material didaktikoak plazara-tzearekin batera.

Hau jakinda, “lehenengo unetik esaten duzu, hau ez da posible. Konpetentzien inguruan hezi nahi ditugu ikasleak, ikasle kritikoak, sortzaileak, ekintzaileak, parte hartzaileak... nahi ditugu. Horrek guztiak talka egiten du planteamendu honekin. Pertsona osoak hezi nahi ditugula esaten ari gara, bere ingurume-



Mariaje Imaz Udarregi Ikastolako zuzendaria GuraSOSeK astelehenean eskaini zuen agerraldian hartu zuen parte.

### MARIAJE IMAZ

**“Inori ez zaigu gustatzen gure ordeztu beste inork erabakiak hartzea, bagara nor eta badugu informazio ugari”**

narekin konprometituak. Hau guztia ez zaigu iruditzen modurik egokiena denik halako planteamenduekin”, Imazen esanetan.

Komunikazio plan horretan hezkuntza eta ikastetxeak ere

interpelatuak diren heinean, ikastetxeei zuzenduta ikastolako zuzendariak adierazi die, bisita hauetara joan edo ez erabaki aurretik “ondo aztertu gaia. Ezin dugu beste aldera begiratu, bete betean interpelatuak gara”.

**Foru agintariei: “Benetako prozesu parte hartzaile eta adostua kontuan har dezatela”** Udarregi Ikastolari dagokionez adierazi zuen, gaia ikastola barruan aztertzeak direla,

bai zuzendaritza taldean baita Artezkaritza Kontseiluan ere. “Bertan aztertuko dugu zein izango den horrelako gonbitak edo material didaktikoak iristen badira, gure ikastolaren gai honekiko jarrera”.

Testuinguru honetan, mezu argia helarazi die foru agintariei. “Benetako prozesu parte hartzaile eta adostua kontuan har dezatela eta era guztietako toxikotasunak ekidin ditzatela, ez bakarrik kimikoak, informatiboak eta komunikatiboak ere alboratzeko”. Gardentasun falta eta manipulazioa hezkuntzatik saihestu beharra dagoela dio. “Helduak gara eta bakoitzak gure irizpideen pean egin behar ditugu azterketak eta erabaki hartzeak, manipulazioa ahalik eta gehien alboratuta”.

Gizartearen heldutasuna defendatu du gai honetan. “Inori ez zaigu gustatzen gure ordeztu beste inork erabakiak hartzea, bagara nor eta badugu informazio ugari”.

## “Eskandalagarria da ingurumen zaintza plan bat konfidentzial gisa deklaratzeko”

GuraSOSeK agerraldian Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) kide Jose Cruz Ruiz Villandiego medikuak hartu zuen parte. “Eskandalagarria da ingurumen zaintza plana konfidentzial gisa deklaratzeko”, zioen, dokumentuak publikoak behar lukeela esatearekin batera.

Delitu izatera heldu daitekeela dio, komunikazio planak dioden moduan, iritzi liderrak, eremu ezberdinetako profesionalak identifikatzen saiatzea, haien profilak eskuratzen ahalegintzea edo planak dioena aipatuz, gutxienik haien “pasibotasun jarrera” lortzea. “Ezkutuko asmoekin, zeintzuk garen kontrolatzea, moduren batean presionatzeko edo pasibotasun jarrera izatera derrigortzeko”, OEIT-ren kidea-

ren esanetan. Ruiz Villandiego medikuaren hitzetan, “kontrol egoera betean gaude, sinestezina da. Egoera hau deskribatzeko ez dago hitzik”. Arriskutsutzat jotzen du ezkutuko komunikazio plan horrek planteatzen duena, “zorrotasun eta errespetu falta pertsonari. Ez dakidana da nola ez diren agintari eta pertsona gehiago altxatzen”.

### “Akuriak izango dira”

Hau guztiari erantsi zion, erraustegia eraikitzen ari diren Zubietatik gertu bizi diren udalerrietako herritarrei osasun azterketak egiteko planteamendua. “Akuriak izango dira”, ohartarazi du OEIT-ko kideak eta “eskandalagarria da herritarrek hala erabiltzea”. Azterketa hauek, gerora erraustegi edo filtro be-

riak eraikitzeke baliatuko da nazioartean, Ruiz Villandiego-ren esanetan.

Gogorarazi zuenez ordea, erraustegia “arrisku orokorra da herritar guztientzat. Erraustegia labe eta laborategi kimiko handia da. Bertan milaka produktu erreko dira eta beste milaka produktu sortuko ditu erraustegiak”. Nabarmetzen zuenez, “Ameriketako Ingurumen Agentziaren arabera, erraustekak sortuko dituen hondakin kimikoak, ezezagunak dira neurri handi batean”.

Honenbestez, Zubietako erraustegia martxan jartzen bada, etorkizunean egun hainbat gaixotasun eragin ditzaketen esposizio berrien aurrean egongo gara. Hori gutxi ez eta, erraustegiko tximiniatik isuriko dena “haizea edo prezipitazioen

bidez sakabanatuko da”.

### “Espero dezagun erraustegia martxan jarri ez eta beste alternatiba batzuk bilatzea”

Bereziki osasun ikuspegitik, hau guztia “izugarri eta eskandalagarria” dela deritzo. Errealitate bat ezkututzen ari direla, eta “haiek saltzen digunetik haratago doana” aldiz entzuterik ez dutela nahi dio. Horren erakusgarri, OEIT-k azken urteotan erraustegien eta gaixotasunen artean dauden ebidentziak agerian utzi dituzten aipatu taldeak kaleraturiko, munduko aditu prestigiotsuen hainbat datu. Hainbatetan jarri nahi izan dituzte datuok Foru Aldundia- ren esku, baina Gipuzkoako agintariak haiekin biltzeari uko egin diete.

# Inauteriek jolastoki ibiltarian bilakatuko dute herria

**P**restatu al dituzue mo-zorroak? Astebete baino ez da geratzen Inauterietarako. Gogoan izan, aurtengo gaia jolasena dugu, urte amaieran zuek eginiko ekarpenen artean hautaturikoa. Usurbil jolastoki erraldoian bilakatu nahi dugu martxoaren 2rako josi dugun egitarau koloretsu eta berrituan.

Berrikuntzekin baitator 2019ko Inauteri Festa. Aisialdi munduko taldeekin eta ekintzekin abiatuko dugu eguna. Goiz parterako, Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak ikasturte honetan elkarlanean abiatu duten Zirimara, eskola kiroleko egitasmo eraberrituak pasa den Erle Egunerako prestaturiko dinamikari jarraituz, haur, gazte nahiz helduentzat jolasak prestatu dituzte larunbat goizerako. “Erle Egunean ezkutaketan jolastu genuen, Inauterietan beste jolas batzuetan parte hartuz gozatuko dugu. Jakin nahi duzue zeinetan? Bada, etor zaitezte martxoaren 2an familia osoa edo lagunartean mozorrotuta eta parte hartuz ezagutuko dituzue. Ez dago aurrez izena eman beharrik. Bertara gerturatu aipatutako orduan eta kito!”.



“Usurbil jolastoki erraldoian bilakatu nahi dugu martxoaren 2rako josi dugun egitarau koloretsu eta berrituan”.

## ERROMERIA

**“Erromeria goizaldera arte luzatuko da. Afalaurretik Ttipika taldea arituko da eta gauerdia pasata hasiko dira Larrian Gozo taldeko kideak”**

Ekimen hau eguerdirako antolatu dugun desfile moduko kalejirarekin lotu dugu. Zirimara proiektuko parteko azken bi jolasak Mikel Laboa plazan eta Artzabalen ospatuko dira. 11:30ean ospatuko da Mikel Laboa plazakoa eta handik Inauteri Festa egunez ezagunak ditugun Burrunbazale txarangakoekin Artzabalera

joko dugu azken jolasean parte hartzera.

Jostalari guztiok, mozorrotuta, txarangarekin batera kalejiran murgiltzera animatzen zaituztegu. Bazkal ordura arte luzatuko den ekimenari ahalik eta desfile itxura handiena eman nahi diogu. Animatu eta murgildu ekitaldi koloretsuan!

## Erromeria herriko taldeekin

Zirimarako partehartzaileak eta Gaztelekukoak ere bertan irtengo dira, herensuge eta guzti. Bigarren kalejira bat izango da arratsalde partean, Burrunbazale txarangakoekin. Eta gero herriko taldeen txanda; erromeria goizaldera arte, afalaurretik Ttipika tal-

dekoekin eta gauerdia pasata, 01:00etan hasita, Larrian Gozoko kideekin.

## Gipuzkoako makil jokoak

Azken urteon ildotik, mozorro festa dantza batean helduko zaigu martxoaren lehenean Orbeldi D.T.-koen eskutik. “Gipuzkoako makil joko desberdinak egingo ditugu. Aurreko urteetan Uztaritzeko Inauteriak, Axeri Dantza eta Luzaideko Inauteriak plazaratu ditugu. Aurten makilak astinduz eman go diogu ongi etorria Inauteriei”. Kiroldigitik abiatuko dira hilaren 1ean 19:00etan kalejiran, herrian barrena pare bat geldialdi egin ostean, azken saioa frontoian eskainiko dute.

## Gaztelekukoak herensugearekin

Zirimarako parte hartzaileekin batera, Gaztelekukoak ere martxoaren 2ko kalejiran irtengo dira, herensuge eta guzti. “Ostargi Gizarte Elkarteak, hainbat nerabe eta gurasoekin sortutako Herensuge txinatarra aterako dute kalera. Nerabeak ohialaren azpian joango dira Herensu-

geari bizitza emanez. Beste nerabe batzuk inguruan joango dira, zintak astinduz, zorteko gailetak banatuz, faroltxoak eramanez, kriskitinak joz eta diaboloa dantzatzuz”, Gaztelekutik NOAUA!ri aditzera eman diotenez.

Dagoeneko prestaketa lan betean dira. “Duela urte ba-

tzuk, Herensugearen burua erraldoi bihurtu genuen Gaztelekuko erabiltzaile batzuekin eta aurtengo gazteek buru berria egiteko asmoa dutela esaten dute eta horretarako materiala biltzen ari dira”.

Kalejiraz gain, beste bi hitzordu antolatu ditu Gaztelekukoak Inauteri Festako arratsal-

de parterako. “Arratsaldean, ondo errotuta dugun ekintza, Karaokea, egingo dugu. Denok ikaragarri gozatzen dugu, musika topera jarritz, elkarrekin eta mozorrotuta, abesten. Eta amaitzeko Bingoa, ea nork izango duen zortea bere alde! Eta honela jai giroan amaituko genuke eguna!!!”.



# Emanaldiak zikloka Udarregi Ikastolan

Ikusmin handia eragin izan dute. Jende uholdea erakarri ohi du urtero Udarregi Ikastolako ikasleen inauterietako ikuskizunak. Eta ezin denak sartu Kiroldegian, dau den aforo mugagatik. Duela bi urtera arte, emanaldi bateratua eskaintzen zuten ikasle guztiek. Iaz formulaz aldatzea erabaki zuten, Oiardo Kiroldegiko aforo mugari irtenbide bat bilatu nahian. Hiru zikloek, hau da, HH, LH eta DBH-koek saioa hirutan zatitzea erabaki zuten orduan. Hau da, ziklo bakoitzak ordu ezberdin batean eskaintzea inauterietako emanaldia. Horrek jende gehiagok ekitaldiotaz gozatu ahal izatea ekarri zuen.

Esperientzia errepikatzea erabaki dute aurten. 2019ko edizioa, "Mozorroak heme-retzi. Atzo, bihar eta etzi. Inauteriei eutsi!" izenburupean ospatuko da. "Sormenez, zein, konpetentzietan oinarritutako talde lan bikaina dugu Inaute-



Udarregiko ikasleek martxoaren 1ean ospatuko dute Inauteri Festa.

## HIRU ZIKLO, HIRU SAIO

**"Kiroldegiko aforoa mugatua denez, Udarregiko hiru zikloak (HH, LH eta DBH) hiru txandatan arituko dira dantzan"**

rietako ekintza hau", Udarregi Ikastolako musikako irakasle Jaione Eskuderok NOAUA!ri azaldu dionez.

3-6 urte arteko HH-ko haurrak izango dira martxoaren lean, kalera mozerro berezi eta koloretsuekin irteten goiztiarrenak. Segidan, "DBHkoek, sorpresaz betetako mozerro, gai eta dantzekin eta azkenik, LHkoek, Mozerroak 19!!", Eskuderoren esanetan.

LH-koen saioa arratsaldean ospatuko da. Adi, Kiroldegiko futbol zelai pareko arrapalatik sartu ahal den emanaldi guztiotarako txartelak eskuratu beharko dira aurrez. HH

eta DBH-koen ikuskizunak hasi aurretik, "kiroldegiko zelai kanpoko atean txartela emango zaio ikusleari sartzeko garaian, beraz, lasai joan gozatzera". LH-koen ikuskizunerako, "LHko ikasle bakoitzari, ikastola bertan txartel bana emango zaio eta soberan geratu diren txartelak ikastolako idazkaritzan jaso ahal izango du bertaratu nahi duen orok otsailaren 27an eta 28an".

## Eskola Txikiak

Zubietako eta Aginagako eskolak ere mozerrotzeko girtzen hasiak dira. Zubietaren kasuan, Erdi Aroko proiektua ari dira lantzen. Gai hau ardatz hartuta mozerrotu eta irtengo dira kalejiran martxoaren lean. Eskolatik abiatu eta ondoko lekuotan geldialdiak egingo dituzte dantzatu eta abesteko: Eskola, Alamandegia, Barazar eta plaza. Giro euritsua izanez gero, frontoian ospatuko dute emanaldia.

## Inauteriak 2019

### Euskal Inauteriak Zubietatik Lasartera

#### Otsailak 23, larunbata

- 11:00-13:00 Sagardotegi kale-tik abiatuta, elkarreetan zehar Puska Bila.
- 16:30 Zubietako plazan ekitaldia.
- 16:45 Zubietatik Okendora kalejira.
- 17:00 Lasarteraren harrera: lasarte oriatarrak zubietarrei gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna.
- 17:15 Zubietarren eta lasartere-oriatarren senidetze dantzaldia.
- 17:30 Kalejira herritik.
- 19:00 Erromeria eta suaren ekitaldi berriak.
- Amaizteko, txokolatada goxoa plazan.

Antolatzaileak: Zubietako herria eta Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak.

### Ikastetxeetako mozerro festak

#### Otsailak 28, osteguna

- 15:30 Aginagako Eskolako inauterietako emanaldia Eliza Zaharrean. Gaia: zirkoa.

#### Martxoak 1, ostirala

##### Udarregi Ikastola

- 10:15 HHkoen festa. Eguraldi onarekin frontoian, bestela, Oiardo kiroldegian.
- 11:00 Bi autoen atzetik LH eta DBHkoak desfile moduan, dantzan aterako dira herrian zehar.
- 11:45 DBHkoen dantza ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.
- 15:30 LHkoen dantza ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.

na Oiardo Kiroldegian.

#### Zubietako Eskola

- 15:30 Zubietako Eskolako inauterietako kalejira. Gaia: Erdi Aroa. Ibilbidea: Eskola, Alamandegia, Barazar eta plaza eguraldi onarekin. Euria bada, frontoian.

### Usurbilgo Inauteri

#### Festa

#### Martxoak 1, ostirala

- 19:00 "Orbeldi Usurbilgo dantza taldearen kalejira herrian zehar. Bukaeran, 20:00ak aldera, Gipuzkoako makil-jotzaile dantzak frontoian. Antolatzailea: Orbeldi dantza taldea.

#### Martxoak 2, larunbata

- Gaia: JOLASAK (Mahai jolasak, denetarikoko jokoak...)

- 11:00 Inauterietan jolasak familia giroan frontoia, herri osoari zuzendua. Antolatzaileak: Zirimara taldea, NOAUA, Udarregi eta Udala.

- 11:30 Frontoitik abiatuta, Inauteri Festako kalejira eta desfile herrikoia Kaxkoan barrena. Gaztelekukoekin eta Zirimara Eskola Kiroleko kideekin. Burrunbazale txarangak musikatuko du ekitaldia.

- 16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan.

- 17:30 -19:30 Frontoitik abiatuta, Burrunbazale txarangarekin kalejira.

- 17:30 Bingoa Gaztelekuan.

- 19:30-21:00 Ttipika taldearen dantza gidatua frontoian.

- 01:00-02:30 Larrian Gozorekin erromeria frontoian.

- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarteak.



Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa

## Hemen amaitzen da guztia

**O**rain dela ia sei urte hasi ginen konpartsa sako lehen kideok, Inauterietako tailer baten harira, Usurbilgo kulturaren zutabe ahaztu eta erdi-hautsi hau berreraikitzen. Urte gutxi batzuen buruan, inork garrantzirik ematen ez zion irudi multzo bat izatetik, bizia hartu duen erraldoi eta buruhandien konpartsa bat izatera pasatu gara. Hamarkada erdi honetan hainbat ekintza burutu ditugu, baina azken hiru urteak izan dira benetan, talde honi berebiziko garrantzia emateko balio izan dutenak. Herrian bertan, hainbat erakunde eta elkarterekin lan-kidetzan aritu gara, hamaika ekitalditan parte hartzeko. Herriko jaietan, kaleak jendez bete ditugu erraldoi topaketeekin. Hauek antolatzearen ondorioz Deba, Zizurkil edo Añorga bezalako herrietara joateko aukera izan dugu. Usurbilgo erraldoi eta buruhandien konpartsa talde ezezagun bat izatetik, Katalunian ere ezagun egin den konpartsa bat izatera pasatu da.

Gaurtik aurrera ordea, dena ezberdina izango da.

Konpartsa sako kideok gazteak gara. Ikasketak ditugu, eta baten batek lana ere bai. Beraz, ezin diogu behar duen denbora eskaini konpartsa sari. Eta taldea bizkar gainean eraman ezin dugula ondorioztatzen dugu. Min handia ematen digu konpartsa albo batera



Batzuk ikasten, besteak lanean, ezin diote behar duen denbora eskaini konpartsa sari. Hori izan da taldea bertan behera uzteko arrazoi nagusia.

### ONENEAN UTZIKO DUTE

**“Min handia ematen digu konpartsa albo batera utzi behar izateak.**

**Baina batzuetan, hobe da gauzak bertan behera uztea, jarraitu eta haserrealdiekin bukatu baino”**

utzi behar izateak, bertako guztientzat izan baita mundu honetarako sarbidea. Baina batzuetan, hobe da gauzak bertan behera uztea, jarraitu eta haserrealdiekin bukatu baino.

Ez genuke agur esan nahi, sei urte hauetan alboan eduki ditugunei eskerrak eman gabe. Lehenik eta behin, eskerrak Usurbilgo Udalari, euren erraldoi eta buruhandiak gabe, ez ginelako ezer izango. NOAUA aldizkariari, irteera bakoitzean argazki nahiz bideoekin, sare

sozialetan konpartsa ezagun eginen laguntzeagatik. Aitzaga Libre, Irrien lagunak eta beste-lako elkarteak, euren ekitaldiak alaitzeko, gurekin gogoratzeagatik. Mutrikuko, Trapagarango Erraldoiak, Oreretako, Villabonako, Zizurkilgo, Oiartzungo, Debako eta Añorgako Erraldoiak konpartsei, euren herrietara gonbidatu eta etxean bezala tratatzeagatik. Erralburu taldeko Jesus Garciari, erraldoi txikien berrikuntza eta buruhandien jantzetaz arduratzeagatik, eta berarekin batera, Aitor Aiestaran hernaniarri, eurak izan baitziren lehen kideei erraldoiak dantzatzen irakatsi eta konpartsa kontzeptuaren oinarria eman zigitenak. Xabier eta Benito Garate Echarri anaiei, erraldoi handien berrikuntzeagatik. Hernaniko, Tolosako eta Untsalaz dultzainero-gaiteroei, behar izan du-

gun uneetan laguntzeagatik. Usurbilgo trikitilariei, eta batez ere, Usurbilgo Txistulari Taldeari, herriko irteeretan erraldoiak dantzatan jartzeko beti prest egoteagatik. Ahaztu zaizkigun beste elkarte eta taldeei, behar izan dugun momentuan esku bat botatzeagatik. Sei urte hauetan konpartsa sako kide izan diren guztiei, beraiek izan baitira erraldoi eta buruhandiak bizirik mantendu dituztenak. Eta azkenik, eskerrik beroenak Angel Txirinbolari, taldearen koordinazioa bere gain hartzeagatik, edozein arazoren aurrean konponbideak emateagatik, eta hartutako errestituzio, azpiegitura eta bestelako lanengatik, betiere diru tanta bat ere poltsikoratu gabe. Angel, zu gabe taldea ez litzateke aurrera aterako.

Gure falta sumatuko delakoan gaude, batez ere herriko jaietan. Agian gure adioak baten bati ez dio axolako, batek daki. Lan on bat egin dugula eta hilda zegoen kulturaren zati bat berpiztu dugula argi dugu, eta alde horretatik, pozik gaude. Lasai gaude.

Besterik gabe, ondo izan eta etorkizun erraldoi bat izan dezazuela!

PD: Facebook eta Instagrameko orriek zabalik jarraituko dute, argazkiak eta bideoak ikusgai jarraitzeko, eta ahal dugun moduan, eduki ditzakezen zalantzak eta galderak argitzeko.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Judo kluba, dominez josia

Urtea garaipenez betea abiatu du Usurbil Judo Klubak. Hona hemen, urtarrilari dagokionez, izan dituzten txapelketetan eskuraturiko emaitzak:

## Gipuzkoako Junior Txapelketa, Hondarribian jokatu:

Irabazitako domina kopurua: 8 (Gipuzkoako txapeldun gehien, Usurbilgo klubak).

■ Emaitzak: urrea Talib Vergarak (-55kg), Delia Medicesek (-48 kg), Mafer Carazasek (-52 kg), Nagore Eizagirrek (-63 kg) eta Irati Bordak (-70 kg). Brontzea Ibai del Rinconek (-55 kg), Jonathan Martinek (-60 kg), Josu Ruizek (-81 kg). Unai Posadak (-73 kg) ere parte hartu zuten.

## Salamancan jokaturako

### Espainiako Junior Kopa:

Irabazitako domina kopurua: 2.



Mafer Carazasek urrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan. Argazkia: Gabi Juan (rfejudo.com).

(Espainiako sailkapenean lehenengo 3 postuetan).

■ Emaitzak: zilarra Lorea Etxabek (-70 kg) eta brontzea Paula Santamariak (-78 kg).

### Euskadiko Junior Txapelketa, Hernanin jokatu:

Irabazitako domina kopurua: 6.

■ Emaitzak: brontzea Delia Medicesek (-48 kg). Urrea Mafer Carazasek (-52 kg), Irati Bordak (-63 kg), Lorea Etxabek (-70 kg), Paula Santamariak (-78 kg), eta Talib Vergarak (-55 kg).

# Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketa

Lehen fasearen baitan aurreikusia dagoen bosgarren eta azken jardunaldia jokatu da aste honen amaiera aldera. Bi neurketa daude iragarriak, Zubieta eta Oiartzunen aurrez aurrekoak biak: Zubieta 2-Txost 1 eta Zubieta 3-Txost 2. Atsedena tokatzen zaio Zubieta 1 taldeari. Bost taldeez osaturiko sailkapen buruan da hain zuzen Zubieta 1, segidan Txost 2.



Zubieta 1 taldea dago une honetan sailkapen buruan.

## Futbol partidak

### Haranen

#### Otsailak 23, larunbata

- 09:30-10:30 Atletismoko alebinak.
- 10:45 Infantil neskek: Usurbil F.T.-Orioko
- 12:00 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Aralar Intxurre
- 15:30 Erregionalak: Usurbil F.T.-Ostadar
- 17:45 Jubenilak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

#### Otsailak 24, igandea

##### 11:00-12:30

- Futbol Eskola 2009: Usurbil F.T.-Sanse
  - Futbol Eskola 2010: Usurbil F.T.-Hernani
- Oharra: behin behineko ordutegiak. Futbol neurketa gehiago egon daitezke.*

## Eskubaloit partidak

### Oiardo kiroldegian

#### Otsailak 23, larunbata

##### Eskola Kirola

- 11:30 Infantil mutilak (Fase Finala B-G2): Udarregi A-Bergara

##### Usurbil K.E.

- 17:00 Jubenil neskek (Federaziozko Trofeoa): Usurbil K.E.-Egia Seicar
- 19:00 Jubenil mutilak (2. fasea, Euskadiko Txapelketa): Usurbil K.E.-Deca Elgoibar

#### Otsailak 24, igandea

- 11:00 Kadete mutilak (Udaberriko Torneoa): Usurbil K.E.-Amenabar B ZKE

## Joko Garbi

### partidak Zubieta

#### Otsailak 24, igandea

Igande honetan jokatu da lehen faseko azken jardunaldia. Zehazteke dago oraindik neurketen ordutegia eta lekua:

- Zubieta 2-Txost 1.
- Zubieta 3-Txost 2.
- Atsedena: Zubieta 1.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Otar-Goxo**  
El ikagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60.

## Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabiziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabiziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alerroburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Iruarkaitz enpresan lan egiteko igeltseroa bilatzen da. Esperientziaduna. Interesatuak bidali mezu bat [iruarkaitz@hotmail.com](mailto:iruarkaitz@hotmail.com) helbidera.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazau, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin.

Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: [gorputzaldiak@udarregi.eus](mailto:gorputzaldiak@udarregi.eus)

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. [info@restaurantearatz.com](mailto:info@restaurantearatz.com)

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altxatu. [jm.fandino@catalanaoccidente.com](mailto:jm.fandino@catalanaoccidente.com). 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 609 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzake. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentzietan pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan



## Urte askotarako, Janitz!

Otsailaren 25ean, 12 urte!  
Muxtxo goxoak familiakoen partez.  
Maite zaitugu.



## Zorionak Ekai, aurten 7 urte!

Muxu potoloak sendi guztiaren partez.

**OHARRA:** 2019ko martxoaren 1ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: otsailaren 25ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



# Agenda otsaila

## 21 osteguna

- **Arnaldo Otegiaren hitzaldia Potxoenean.** 18:30ean Sutegin. Gidaria: Mertxe Aizpurua.

## 22 ostirala

- **Elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

## 23 larunbata

- **Euskal Inauteriak, Zubietatik Lasartera.** Egun osoko festa. Ikus 17. orrialdea.
- **Kantu-jira.** 12:30ean Mikel Laboa plazatik, 14:00ak arte.
- **GuraSOsek deitutako manifestazioa** 17:00etan Antiguako tunelean.

## Euskal Inauteri festa Zubietatik abiatuko da

**H**erri eta txoko askotan, martxoaren 2an murgilduko dira Inauteri giroan. Euskal Inauteria ordea lehenago ospatuko dute Zubietan eta Lasarte-Orian. Hauxe da larunbat honetarako prestatu duten egitaraua:

### Otsailak 23, larunbata

- 11:00-13:00 Sagardotegi kaletik abiatuta, elkarteetan zehar Puska Bila.
- 16:30 Zubietako plazan ekitaldia.
- 16:45 Zubietatik Okendora kalejira.
- 17:00 Lasarterarren harrera: lasarteoriatarrak zubietarrei gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna.
- 17:15 Zubietarren eta lasarte-oriatarren senidetze dantzaldia.



Hipodromoko zubian batuko dira zubietarrak eta lasarteoriatarrak.

- 17:30 Kalejira herritik.
- 19:00 Erromeria eta suaren ekitaldi berriua.
- Amaitzeko, txokolatada goxoa plazan. Antolatzaileak: Zubietako herria eta Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarte.

## Kantu-jira

10 urte bete dituen Usurbilgo Kantu Taldea, hamargarren urtemuga festaren atarian da jada. Aurretik hileroko hitzordua deitu du larunbaterako. Eguerdiko 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Kantu-liburuxka eramateaz ez ahaztu. Gogoan izan baita, astelehenero biltzen dira kantu zaletuak 18:00-19:00 artean, Agerialdeko musika gelan.

## Kzgunea

Otsailaren 28ra arte 16:00-20:00 artean irekiko dute KzGunea. Martxoan aldiz, goizez, 9:00-13:00 artean. Lehen ikastaroak, hauexek:

- Martxoak 1-12, 09:00-11:00 “Argazki ukitua GIMP erabiliz”.
  - Martxoak 1, 11:00-13:00 “Musika aplikazioak zure gailuetarako”.
- Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37. 943023684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

## Datozenak

### Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo festak antolatzen segitzeko Jai batzordeak bigarren bilera deitu du otsailaren 27rako 18:00etan Potxoenean. Zer nolako Santixabelak bizi nahi ditugun proposatzeko aukera izango da, antolaketa lanetan parte hartu nahi duten herritar nahiz eragileei irekia izango den hitzorduan.

### Korrika Batzordearen bilera

21. Korrikara begira, biltzen hasia da herriko batzordea. Hurrengo bilera irekia, martxoaren 1ean, 17:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Informazio gehiago: 607 609 379 / usurbil@aek.eus / korrika.eus

### Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

Josu Osaren txanda iritsi da. Martxoaren 2an “fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa” ikastaroa eskainiko du 9:00-13:00 artean Potxoenean. Irailera arte luzatuko den ikastaro osorako izena eman zitekeen arren, saio solteetarako ere apuntatu daiteke. Izena eman eta informazio gehiagorako: 943 361 114 alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

943 370 008

**Patri**  
Patri ETA  
Jatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361



# INAUTERIAK 2019 USURBIL Jolasak



## Martxoak 1, ostirala

Orbeldi Usurbilgo dantza taldearen emanaldia herrian zehar

19:00 Kiroldegitik aterata kalejira.

20:00 Frontoian azken saioa: Gipuzkoako makil-jotzaile dantzak.

## Martxoak 2, larunbata INAUTERI FESTA

11:00 Inauterietan jolasak familia giroan frontoian.

11:30 Frontoitik abiatuta, BURRUNBAZALE txarangarekin MOZORROTUEN kalejira herrikoia.

16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!!!

17:30 Frontoitik BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira.

17:30 Bingoa Gaztelekuan.

19:30 Ttipika taldearen dantza gidatuen emanaldia eta erromeria frontoian.

01:00 Larrian Gozo Usurbilgo taldea frontoian.



**NOAUA**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra  
**TXOTX GARAIA**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)



### IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi  
berria 2019. primerako  
sagardoekin  
943.361.229



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL [sidreria@sidrassaizar.com](mailto:sidreria@sidrassaizar.com) [www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

**943 37 39 95**

## aginaga

### SAGARDOTEGIA

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



*%100 bertako saarra*

### Tel: 943 365 031

Santuenea